

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### LAN ETA ENPLEGU SAILA

## 477

*AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 22koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita izendapen askeko sistemaren bidez lanpostu hau betetzeko deialdi publikoa: Vitoria-Gasteizko Lan eta Enplegu Saileko Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzako «goi-kargudunaren idazkaria» lanpostua kodea: 520010; dotazioa: 31.*

Euskal Enplegu Publikoaren buruzko, abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 102.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, «Vitoria-Gasteizko Lan eta Enplegu Saileko Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkaria» lanpostua hutsik dagoenez (kodea: 520010; dotazioa: 31), eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak aldeko txostena eman ondoren, sail honek erabaki du eranskinean zerrendatzen den lanpostua izendapen askeko prozeduraren bidez beteko dela,

#### OINARRIAK

Lehenengoa.– Parte hartzeko baldintzak.

1.– Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioek, baldin eta eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Era berean, eta baldintza berberetan, beste administrazio publiko batzuetako karrerako funtzionarioek, irakaskuntzako eta Justizia Administrazioko karrerako funtzionarioek eta erakunde sanitarioetako estatutupeko langile finkoek parte hartu ahal izango dute, baldin eta lanpostuen zerrendan berariaz aurreikusten bada horrelako langileek bete ahal izango dituztela.

2.– Langile horiek deialdi honetan parte hartu ahal izango dute, edozein administrazio-egoeratan daudela ere, honako kasu hauetan izan ezik:

Eginkizun-gabetze irmoan dauden funtzionarioak, egoera horrek irauten duen bitartean.

Norberaren interesagatik edo familia elkartzeagatik borondatezko eszedentzian egonik, lanera itzultzeko eskatzen den gutxieneko denbora igaro ez duten langileak.

3.– Deialdi hau EHAAAn argitaratzen den egunean bete beharko dira eskatutako betekizunak. Esleitutako lanpostuak jabetzan hartu arte bete beharko dira baldintza horiek. Parte hartzeko baldintzak betetzen ez dituzten parte-hartzaileek ezin izango dute esleitutako lanpostuaz jabetu.

Bigarrena.– Eskabideak.

1.– Hautagaiek Lan eta Enplegu Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak, 15 egun balioduneko epean, agindu hau EHAAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabidean, datu pertsonalak eta oraingo destinoa adierazi beharko dituzte.

2.– Hautagaiek «curriculum vitae» bat aurkeztu beharko dute idazkiarekin batera, honako hauek adierazita:

- a) Titulu akademikoak.
- b) Administrazio Publikoan eta, hala badagokio, enpresa pribatuan betetako lanpostuak.
- c) Egindako ikasketak eta ikastaroak, hizkuntzak jakitea eta hautagaiek egoki irizitako beste edozein merezimendu.

Eskabide horrekin batera, eskatutako baldintzak eta alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte izangaiak, salbu eta horiek Langileen Erregistroan jasota badaude. Era berean, egoki irizitako argitalpenak, txostenak edo bestelako agiriak ere aurkeztu ahal izango dituzte.

Hirugarrena.– Ebazpena.

Agindu bidez ebatziko da deialdi hau. Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua, EHAAan argitaratua, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean.

Lanpostuaren esleipenduna lanpostuaz jabetu beharko da erabakitzen den egunean, eta, hala badagokio, aurreko lanpostuaren titulartasuna galduko du.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok agindua eman duen organoari, hilabeteko epean, agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, agindua EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 22a.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburua,  
IDOIA MENDIA CUEVA.

## ERANSKINA

Deitutako lanpostua:

- Izena: Goi-kargudunaren idazkaria.
- Kodigoa: 520010.
- Dotazioa: 31.
- Kokapena: Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Zentrala – Lakua.
- Lan eta Enplegu Saila.
- Helmugako herria: Vitoria-Gasteiz.
- Taldea: C1/C2.
- Gorputza: A05EU/A07EU.
- Lanpostu Osagarria: 18.
- Berariazko osagarria: VI-A.
- Hizkuntza-eskakizuna: 2.
- Derrigortasun data: 2002-10-30.